



# Les Tambours de Feu

Deabru Beltzak antzerki taldea



# Laburpena


Les Tambours de Feu ..... p2  
Fitxa teknikoa ..... p4  
Taldearen aurkezpena Deabru Beltzak ..... p5-6





# Les Tambours de Feu

Aker, akelarreko deabrua, hor dabil kaleetan zehar bere perkusionisten lagun taldearekin gure herri eta hirietan zehar ibiltzeko prest. Zuzeneko musika, piroteknia eta izugarritzko efektu espezialez osatutako ikuskizuna. Esku bat danborrean eta bestea "zirian". Honela sortu da Deabru Beltzak taldearen proposamen berria.



Ikuskizun honek, musika, piroteknia eta efektu bereziak nahasten du ibilbidearen zehar.

Su primitiboa eta erritmo sorginduak, ikuslen lilura bihurtzen du.





Ohituren jatorrietara bidaiatuz

# Fitxa teknikoa

- Iraupena 50 minutu – Ibilbidearen luzeera 800m  
galdetu luzeagoa izan eskero
- Piroteknia 35Kg baino gutxiago
- Baimen guztiak (trafikoa, piroteknia etc....) antolatzailearen ardurapean dira
- Ikuskizunaren energia gustiak mantentzeko aholkatzen da, ibilbidea 880m baino luzeagoa ez izatea
- Antolatzaileak jarriko du pertsona bat taldea iristen denetik Joan arte
- Aldagela 7 pertsonentzat
- Taldearen furgonetarentzat leku bat aparkatzeko



# Taldearen aurkezpena Deabru Beltzak



Euskal Herriko hainbat antzerki taldetik gentozen aktoreek sortu genuen 1996an Deabru Beltzak kale antzerkia. Ordu ezkerro 10 antzezlan aurkeztu ditugu, hoiekin 3.000 ekitaldi eginez, 80 aldiz enkargatu dizkigute ekimen berezien antolakuntza, 50 hiritako jaien zuzendaritza artistikoa egin dugu, munduko 35 talderekin egon gara elkar lanean eta gaur egun ondoko erankundeekin kolaboratzen dugu: Eusko Jaurlaritza, Ministerio Español de Educación, Cultura y Deporte, Bilbao Udaleko Kultura Saila, Gouvernement du Québec, Le Moulin Fondu, Le Forneau, Leioako Umore Azoka, Fest'Arts Libourne, Fira de Teatre al Carrer de Tàrrega, Arriola Kultur Aretoa, Chalon dans la Rue, Lekeitioko Nazioarteko Kale Antzerki Jaialdia, Portal 71 producciones culturales, Bizkaiko Foru Aldundia...etc 5 kontinente eta 35 herrialde baino gehiagotan egin dugu lan, Euskal Herriko talderik nazioartekoena bilakatuz.

# Taldearen aurkezpena Deabru Beltzak

Lehenengo ikuskizuna, Les Tambours de Feu, izan zen. Debru Beltzak definitzen dituen ezaugarri guztiak zituen: talde lana, mugimendua, kaleraren erabilera berri bat, perkusioa, ikuslearekin zuzeneko erlazioa, eta batez ere, energia eta ilusio asko.

Lehenengo lan honekin, konpainiak mundu guztitik 800 emanaldi egin zituen (Frantzia, Alemania, Kolonbia, Venezuela, Belgika, Brasil, Kanada, Luxenburgo, Mexiko, Suitza, Cabo Verde, Italia, Portugal, Kroazia, Polonia edo Ingalaterra). Ospe handia lortu zuen bai Estatu Espainolean eta baina mundu osoan ere.

Horrela, Deabru Beltzak mundu mailan euskal konpanietatik ohiartzun gehien izaten lortu zuen, gaur egun ere 20 urte pasa ondoren berdin jarraitzen du.

